



(abajo en castellano)

Euskararen legearen aldaketa pozez hartu dugu.

STEILAS sindikatuak pozez hartu du Euskararen Legea aldatzeko proposamenak, behingoz, aurrera egin duelako.

Urte gehiegi eman dugu erabat estua izan den marko legala gainditu nahian, eta orain bestelako egoera baten hastapenetan gaudela pentsatzen dugu.

Maiatzeko hauteskundeen ondoren Nafarroan gobernu berria izanen dugu, UPNkoa ez den gobernu izanen delakoan gaude, eta hari egokituko zaio burutu berri den matrikulazioan atzeman diren beharrei erantzutea. Gauzak honela, alderdi politikoei dei egiten diegu Nafarroako herrietan D ereduan sare publikoan ikasteko eskaerak kontuan hartzeko, eta ez erabiltzeko aitzakia bezala berariazko araudia garatu beharra zonalde ez-euskaldunear euskarazko taldeak sortzeko 15/16 ikasturtean. Gogoratu nahi dugu araudia izan ez izana, berez, ez dela oztopo izan hainbat kasutan, hala nola, Noainen eta Mutiloan; hauek zonalde ez-euskaldunear daude eta D eredu dute. Oraingo Departamentuak ahaleginak egin ditu urte betez atzeratzeko legearen aldaketa, baina erabakiak zuzentzeko aukera dago.

Publikoan sinisten baitugu Nafarroako Gobernuari exijitzen diogu sare publikoaren eskaintzan euskaraz ikasteko aukera bermatzeko Nafarroako edozein herritan.

Nota de prensa / Prentsa oharra

El sindicato STEILAS se congratula de la aprobación del cambio de la Ley del Euskera.

Después de diversos intentos, al final se ha conseguido modificar este marco legal lleno de barreras, y nos encontramos ante un nuevo panorama en el sistema educativo público.

Tras las elecciones de mayo tendremos el convencimiento de que contaremos con un nuevo Gobierno en Navarra, un gobierno en el que no estará UPN, y que en lo educativo, tendrá que atender las demandas de las familias para el curso escolar próximo. Hacemos un llamamiento a los partidos políticos de Navarra a no poner como excusa la necesidad de un reglamento específico para la denominada zona no vascofona, y que en consecuencia posibilite la apertura de grupos de modelo D en el curso 15/16 en cualquier punto de Navarra. Cabe recordar que en la denominada zona no vascofona hay centros que cuentan con este modelo en este momento (Noain, Mutilva). El Departamento ha querido retrasar su aplicación un año, pero es una situación que se puede revertir.

Porque creemos y apostamos por la enseñanza pública, exigimos a la Administración que garantice la enseñanza del euskera en todos los centros públicos de Navarra y que se pueda utilizar como lengua vehicular.

Pamplona/Iruña otsailak 19